

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.). **2025eko azaroaren 8tik 14rako astea.**

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2025/11/08**

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Animalien elikadura. 932/2025 Errege Dekretua, urriaren 21ean, zeinaren bidez errege-dekretu hauek aldatzen diren: 496/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Espainian etxaldeetako animaliak animalia-jatorriko zenbait pentsurekin elikatzeari buruzko Europar Batasunaren araudia aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen, eta 629/2019 Errege Dekretua, urriaren 31koa, zeinaren bitartez erregulatzen diren animalien elikaduraren sektoreko establezimenduen erregistro orokorra, aipatutako establezimendu horien eta nazioko sarrera puntuen baimentze edo erregistro baldintzak, pentsu operatzaileen jardura eta animalien elikaduraren alorreko koordinazio batzorde nazionala. **22605 Xedapena- 7 or.**

**2025/11/10**

- **HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALA.** Hauteskunde-araubide orokorra. 3/2025 Instrukzioa, azaroaren 6koa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 44.bis, 187.2 eta 206. artikulua abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoak, ordezkaritza parekideari eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari buruzkoak, emandako idazketan aplikatzeari buruzkoa **22665 Xedapena- 3 or.**

**2025/11/11**

- **OGASUN MINISTERIOA.** Gastu publikoak. Ekitaldiaren itxiera. HAC/1272/2025 Agindua, azaroaren 4koa, 2025eko ekitaldia ixteko eragiketa hauek arautzen dituen: gastuen aurrekontuari buruzkoak eta aurrekontuz kanpoko eragiketei buruzkoak. **22790 Xedapena- 5 or.**

**2025/11/13**

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Araudi tekniko-sanitarioak. 1026/2025 Errege Dekretua, azaroaren 12koa, Gosari-produktuen elikagai-kalitatearen arloko zenbait arau aldatzen dituena. **22947 Xedapena- 11 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.** Animalien osasuna. APA/1288/2025 Agindua, azaroaren 11koa, hegazti-gripearen kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko asmoz ustategien konfinatze-neurria ezartzen duena. **22954 Xedapena- 3 or.**

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA.** Gizarte Segurantza. Ekitaldiaren itxiera. ISM/1289/2025 Agindua, azaroaren 5koa, Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erakundeen 2025eko ekitaldia ixteko eragiketak arautzen dituen. 22957 Xedapena- 7 or.

2025/11/14

- **GORTE NAGUSIAK.** Senatua. Erregelamendua. Senatuaren Erregelamenduaren erreforma, zenbait artikulua aldatzen dituen 23055 Xedapena- 48 or.
- **OGASUN MINISTERIOA.** Zergak. Hutsen zuzenketa: HAC/1198/2025 Agindua, urriaren 21koa, 240 eredu «Entitate aitortzaileak Zerga Osagarriaren informazio-aitorpena jakinaraztea», 241 eredu «Zerga osagarriaren informazio-aitorpena» eta 242 eredu «Zerga Osagarriaren autolikidazioa» onesten dituen eta ereduak aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen. 23057 Xedapena- 1 or.

## **E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

2025/11/13

- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** AGINDUA, 2025eko azaroaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen diren euskararen jakite-mailak egiaztatze eta ebaluatze sistemak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 26.1.b) artikuluan ezarritakoak. 4815 Xedapena- 4 or.

## **A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

### **B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

2025/11/13

- **Ogasun eta Finantza Saila.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 468/2025 FORU AGINDUA, azaroaren 5koa, honen bidez, aldatu egiten da 60/2015 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa, 20R eredu onesten duena. «20R eredu: bat-egiteen, zatiketen, aktibo-ekarpenen, balore-trukeen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoaren, eta Europako sozietate edo kooperatiba-sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzearen zerga-araubide berezia aplikatzeko jakinarazpena». 218 Xedapena- 14 or.

### **G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

### **E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - 48009 BILBAO